



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

## **MORIAKO ERREFUXIATU KANPAMENDUAREN EGOERA LARRIARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

Irailaren 8an, sute handia izan zen Moriako errefuxiatuen kanpamenduan, non ia 13.000 pertsona bizi ziren egoera ez onargarri batean lehendik ere. Pertsona horien egoera, hortaz, larriagotu egin da Covid-19ren pandemia bete-betean. Ondorioz, milaka pertsonak zuten apurra galdu dute eta ihes egin behar izan dute, gainera poliziak Mitilinira, uharteko hiriburura, doan errepidea blokeatuta daukela.

4000 haur baino gehiago ebakuatu dituzte Lesbosetik Greziako iparraldera, eta 1.000 pertsona inguru ere, ahulenak direnak, ebakuatuko dituzte. Giza tragedia honen aurrean emergentziatzko erantzunak behar dira, kolektibo guztientzat, bai eta Europar egiturazko neurriak onartzea migrazioen fenomenoari errotik heltzeko, argi aurreikusten delako honek luze jo dezakeela.

Horri guztiari gehitu behar zaio Greziako gobernuak azken hilabeteotan legeak gogortu eta poliziaren kontrol handiagoa ezarri duela, eskuin muturrak iheslariei eta Gobernu Kanpoko Erakundeei (esaterako, Zaporeak Proiektuari) erasoak egin dizkiela, eta Europar Batasunak arlo horretan erakutsi duen axolagabekeria; izan ere, Europar Batasuna ez da gai izan duela bi urte ezarri ziren birkokapen-kuotak betetzeko, berez eskasak ziren kuota batzuk, Europako kostaldeetara heltzen ari zen pertsonen kopuruak ikusita.

## **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE LA GRAVE SITUACIÓN DEL CAMPAMENTO DE REFUGIADOS DE MORIA**

El pasado 8 de septiembre tuvo lugar un incendio en el campo de refugiados de Moria, donde 13.000 personas en situación previamente inaceptable han visto agravadas aún más sus circunstancias, en plena pandemia de Covid 19. Miles de personas han perdido lo poco que tenían en torno a este campo y han debido huir, teniendo además la policía bloqueada la carretera hacia Mitilini, la capital de la isla.

Más de 4.000 niños y niñas han sido evacuados desde Lesbos al norte de Grecia, y alrededor de 1.000 personas, las más vulnerables, serán evacuadas también. Esta tragedia humana exige respuestas de emergencia que aborden a todos los colectivos, así como la aprobación de medidas estructurales europeas que afronten el fenómeno migratorio de raíz, ante una manifiesta previsión de durabilidad.

A todo ello se suman la situación de los últimos meses en los que el gobierno griego ha endurecido las leyes y ha ejercido un mayor control policial, los ataques de la extrema derecha a las personas huidas y las ONGs, como el Proyecto Zaporeak, y la indiferencia de la Unión Europea en esta materia, que ni siquiera ha sido capaz de cumplir las cuotas de reasentamiento y reubicación que se había fijado hace dos años, unas cuotas de acogida exiguas en comparación con la cantidad de personas que estaba llegando a las costas europeas.



Europar Batasunak asilo- eta immigrazio-politika komun bat diseinatu behar du Europarako, pertsona guztien ongizate eta giza eskubideen egoera bermatzeko aldera, jakinda aldizka etorri diren migrazio-oldeen aurrean abian jarri diren ekintzek porrot egin dutela.

Europarako politika komun bat da giza arazo zirragarri honi konponbide integrala emateko bidea ireki dezakeen erantzun bakarra. Politika bat abian jarriko dituen asilo-eskubidea bermatzeko Europako Batasunaren itunean eta oinarrizko Giza Eskubideen kartan jasotzen diren neurriak. Alde horretatik, premiazkoa da bisa humanitarioak jasotzea Europako agendan, ahalbidetzeko Europarako asiloa eskatzen dutenei era seguruan sartzea, gatazkan diren herrialdeen mugan dauden harrera-zentroak zabaltzea eta Europako herrialdeen artean errefuxiatuen kuotak banatzeko irizpideak eta sistema definitzea.

Gizalegearen, elkartasunaren eta erantzukizunaren balioak beti dira beharrezkoak, are gehiago une honetan errefuxiatutako pertsona horientzat.

Horregatik guztiagatik :

Gasteizko Udalak:

- Elkartasuna adierazten diete pertsona errefuxiatuei, beren eskubideen urraketa sistematikoaren eta bizi duten babesgabetasun eta zaurgarritasun egoeraren aurrean.

La Unión Europea debe diseñar y planificar una política común europea de asilo e inmigración que vaya dirigida a garantizar el estatus de bienestar y derechos sociales de todas las personas, siendo consciente de que las acciones puestas en marcha ante las periódicas olas migratorias han resultado erróneas y fallidas.

Una política común europea es la única respuesta que puede permitir alumbrar una solución integral a este sobrecogedor problema humano. Una política que ponga en marcha las medidas necesarias para cumplir el mandato de derecho de asilo que se integran en el tratado de la Unión Europea y en la carta de Derechos Humanos fundamentales. En este sentido, es urgente introducir en la agenda europea los visados humanitarios que permitan un acceso seguro a los demandantes de asilo a Europa, la apertura de centros de recepción en las áreas limítrofes a países en conflicto y la definición de criterios y sistema de distribución de las cuotas de refugiados entre los distintos países europeos.

Los valores de humanidad, solidaridad y responsabilidad son necesarios siempre y en este momento más para con estas personas refugiadas.

Por todo ello:

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz:

- Se solidariza con las personas refugiadas ante la violación sistemática de sus derechos y la extrema situación de vulnerabilidad y desamparo en la que se encuentran.



- Dei egiten dute Europan mobilizazioa egin dadin, lekualdatze- eta birkokatze-prozesua aktibatzen, nazioarteko legeria, Genevako Konbentzioa, giza eskubideen arloko itunak eta Nazioarteko Zuzenbidea betez, inolako bazterketarik gabe.
- Europako instituzioei eskatzen diete dibertsitatearen balioa aitortu dezatela, eta perspektiba hori jaso dadila migrazio-fluxua erregulatzeko politiketan, funtsezkoa baita hori XXI. mendeko Europa berria garatzeko.
- Instituzioei eskatzen diete ezen, lankidetzan arituz eta bakoitzaren eskumenetara egokituz, erantzun premiazkoak, eraginkorrak eta iraunkorrak eman diezazkiotela Europak migrazioaz duen erronkari.
- Apela a la movilización europea activando el proceso de traslado y reubicación, en cumplimiento de la legislación internacional, la Convención de Ginebra y los tratados en materia de derechos humanos y el Derecho Internacional sin ningún tipo de exclusión.
- Insta a las Instituciones europeas a reconocer el valor de la diversidad, incluyendo ésta perspectiva en las políticas de regulación de los flujos migratorios como elemento indispensable para el desarrollo de la nueva Europa del siglo XXI.
- Insta a todas las Instituciones a que, desde actuaciones de colaboración y adecuación a las diferentes competencias, den respuestas urgentes, eficaces y duraderas al reto migratorio en Europa.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko irailaren 25ean.

Vitoria-Gasteiz, a 25 de septiembre de 2020.